



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK EZ DABE ONARTU GARRAIO PUBLIKOKO ZENBAIT TXARTELEN PREZIOA % 15 BAJATZEA

- **EH Bilduren ekimenak Euzko Abertzaleen eta Euskal Sozialisten kontrako botoa jaso dau; Elkarrekin Bizkaia, barriz, hileko, urteko eta Barik bidezko bidaietan Bizkaiko Garraio Partzuergoari (BGP) deskontuak eskatzeko neurriaren alde agertu da.**
- **Modu berean, Bizkaiko parlamentuak ezetsi egin dau Bilboko itsasadarrean ibaiko garraio-linea bat aztertzeko Elkarrekin Bizkaia aurkeztu dauen arauz besteko proposamen bat.**

(Bilbon, 2022ko maiatzaren 16an). Garraio eta Mugikortasun Jasangarrirako batzordean EH Bildu taldeak garraio publikoaren prezioa % 15 bajatzeko aurkeztu dauen arauz besteko proposamena atzera bota dabe gaur Bizkaiko Batzar Nagusiek. Zehatzago, koalizino abertzaleak beherapen hori hileko eta urteko abonuen tarifetan eta Barik txartelagaz egindako joan-etorrietan apliketea eskatu dau. Ekimenean beste puntu bat gehitu da, Aldundiak hurrengo urte bietan bonu multimodalen eta Bariken tarifak izozteko aukerea aztertu daian. Ekimena bertan behera geratu da kontrako 9 botogaz (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak), aldeko 4gaz (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) eta abstentzino bategaz (Talde Berezia-PP Bizkaia).

Raul Mendez EH Bilduko batzordekidearen berbetan, garraio publikoa merketzeko asmoa, Ukrainako inbasioak eta erregaien prezioen igoerak eragindako ziurbakotasun ekonomikoko garaian garraio publikoaren erabilera bultzatzea zan. Abagune horri “trantsizino ekologikoan aurrera egiteko” beharra gehitu behar jako. Haren eretxiz, “beharrezkoa da” ibilgailu pribaduaren erabiltzaileei eskainitako laguntzak, horreen artean erregai litro bakoitzeko 20 zentimoko deskontua, parekatzeko “maila bereko” neurriren bat emotea garraio publikoaren erabiltzaileei, “hobarietarako lerroen” bidez. Mendezek, garraio publikoa merketzeko aldi baterako neurriak ezarri diran Alemaniako eta Errioxako kasuak jarri ditu adibide moduan.

EH Bilduk planteautako neurriari buruzko eretxia emon dauen lehenengo alderdia Talde Berezia-PP Bizkaia taldea izan da. Eduardo Andrade bozeroaleari “ilusino berezia” egin deutso koalizino abertzaleak bere alderdiagaz bat egitea “zergen beherapenen” defentsan, “herritarren esku diru gehiago jarteko helburuagaz”. Batzordekide popularrak Gobernu zentralak ezarritako gasolinaren tarifen bajatzea



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

kritiketako aprobetxau dau aukerea, ez dalako gura besteko eragina izaten ari; izan be, Euskadin erregaiak “6,9 zentimo” egin dau gora.

Batzar Nagusietako Elkarrekin Bizkaia taldea arrazoi birengaitik agertu da garraio publikoaren prezioa bajatzearen alde: “familiak nasaitzeko modu bat” dalako, bizitzak gora egin dauelako, eta ibilgailu pribadua erabilten daberen personak garraio publikora bideratzeko “pizgarria” dalako. Eva María Caborneroren eretziz, familien gastuak murrizteko Aldundiak bere lehentasunen artean sartu behar dau neurri hori. Modu grafikoan ohartarazo dau 4 kideko familia batek “187 euroko” kostua dauela hilean garraio publikoan.

Beste alde batetik, Euskal Sozialistak taldeak zifrak jarri ditu mahai gainean, Bizkaian garraio-sarea mantentzeko administrazio publikoak egiten ari diran ahalegina erakusteko. Lurrealdeak urtean garraio publikoari eusteko “gastetan dituan 300 milioietatik”, “% 69a” finantzaketa publikoaren bidez ordaintzen da. “Heren bat” baino ez da txartelen salmenten diru-sarrerakaz ordaintzen. Gaur egun, Bizkaiko biztanle bakotxak “160 euroko diru-laguntzea dauka urtean”, “garraio publikoa erabili edo ez”, José Alberto Álvarez Castrejón sozialistaren berbetan.

Holan, Foru Gobernua babesten dauen beste taldeak –Euzko Abertzaleak– EH Bilduren idearen atzean “tranpea” ezkutetan dala azpimarratu dau, hau da, garraio pribaduaren kostuaren igoerearen egoera garraio publikoaren agertokiagaz parekatzen saiatzen dala. Erregaiak bajatzeko hobaria “ohiz kanpoko” neurria da, eta garraio publiko zerbitzua emoten daberen administrazioek be jasaten daberen erregaien prezioaren igoera handia dala-eta planteau da; garraio publikoaren erabiltzaileei, barriz, ez jake bidaiaren prezioa igon.

IBAI-GARRAIOA ITSASADARRETIK

Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaia taldeak Ibaizabalgo itsasadarrean ibai-garraio publikoko linea bat aztertzea planteetako arauz besteko ekimena defendidu dau batzorde berean. Ekimena bertan behera geratu da barrero, Foru Gobernua babesten daberen taldeen ezezkoa dala-eta. EH Bildu eta Talde Berezia-PP Bizkaia taldea azterlan horren alde agertu dira.

Emilio Lobato talde moreko batzordekideak “Itsasadarraren ertz biak hainbat puntutan lotzeko” ibai-garraioa egokitzeko aukerari buruzko azterlana egitea defendidu dau, Erandio eta Barakaldo artean edo Portugalete eta Areeta artean gaur egun dagozan “gasolino” zerbitzuak erreferentziatzat hartuta, eta itsasadarraren ertz bietan dagozan amarralekuak zerbitzuaren balizko geraleku lez balorauta. Itsasadarraren ertzetara bizigarritasun handiagoa ekarriko daberen urigintza-garapen “garrantzitsuak” dagoz, eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

aitatutako zerbitzua egungo sarean integretako kontuan hartu beharko dira. Ganera, ondare-elementu bat –gasolinoak– “salbau” egingo litzateke.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek idea baztertu ostean, Bizkaiko parlamentuak ez deutse Bizkaiko Mugikortasun Agintaritzan (BMA) azterlan hori egiteko eskatuko Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, Elkarrekin Bizkaiak eskatzen eban moduan. Talde biek, Ingartek enpresak Bilboko Udalarentzat egin eban eta 2021eko abenduan argitaratu zan azterlana ekarri dabe mahai ganera. Azterlan horretan, Bilboko tartean itsasadarrean garraio-zerbitzurik ez egiteko gomendioa emoten zan. Azterlanaren ondorioen artean “ez zala alternatiba bideragarritzat jotzen” esaten zan, ez ebalako hobetzen garraio-sarearen gaur egungo eskaintzea. Izan be, maiztasunari eta geltokien arteko tarteari jagokenez gaur egungo garraio-sarea “askoz be egokiagoa da” adierazo dau Unai Lerma batzordekide jeltzaleak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA RECHAZAN UNA REBAJA DEL 15% EN EL PRECIO DE ALGUNOS BILLETES DEL TRANSPORTE PÚBLICO

- **La iniciativa de EH Bildu es desestimada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, mientras que Elkarrekin Bizkaia apoya una medida que pretendía pedir al Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB) descuentos en los abonos mensuales, anuales y en los viajes con Barik.**
- **Asimismo, el Parlamento de Bizkaia rechaza una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia para que se estudie una línea de transporte fluvial por la Ría de Bilbao.**

(Bilbao, a 16 de mayo de 2022). Las Juntas Generales de Bizkaia han rechazado hoy en la comisión de Transportes y Movilidad Sostenible una proposición no de norma del grupo juntero EH Bildu para reducir el precio del transporte público en un 15%. Concretamente, la coalición abertzale ha pedido que se aplicara esta rebaja en las tarifas de los abonos mensuales y anuales, y en los traslados con la tarjeta Barik. En la iniciativa se incorporaba otro punto para que la Diputación estudiara la posibilidad de congelar las tarifas durante los dos próximos años de los abonos multimodales y de Barik. La iniciativa ha decaído por 9 votos en contra (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos), 4 a favor (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia), y 1 abstención (grupo Mixto-PP Bizkaia).

La intención de esta rebaja del transporte público era, según el apoderado de EH Bildu Raúl Méndez, fomentar el uso del transporte público en un periodo de incertidumbre económica marcado por la invasión de Ucrania y la subida de los precios de los carburantes. A esta coyuntura se le une la necesidad de “avanzar en la transición ecológica”. Es “necesario”, a su juicio, que las ayudas ofrecidas a las personas usuarias del vehículo privado, como el descuento de 20 céntimos por litro de combustible, se “equiparen” con alguna medida destinada a las personas usuarias del transporte público mediante “líneas de bonificación”. Méndez ha puesto como ejemplo los casos de Alemania o La Rioja, donde se han implantado medidas transitorias de abaratamiento del transporte público.

La primera formación en opinar sobre la medida planteada por EH Bildu ha sido el grupo Mixto-PP Bizkaia. A su portavoz, Eduardo Andrade, le ha hecho “especial ilusión” que la coalición abertzale se una a su formación en la defensa de las “rebajas



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

fiscales” con el objeto de “dejar más dinero en manos de los vecinos”. El juntero popular ha aprovechado la ocasión para criticar la rebaja de la gasolina decretada por el Gobierno central, que “no está teniendo el efecto deseado”, ya que en Euskadi el carburante ha subido “6,9 céntimos”, ha argumentado.

El grupo juntero Elkarrekin Bizkaia ha expresado su apoyo a rebajar el precio del transporte público por dos cuestiones: ser “un desahogo para las familias” debido a la subida de la vida, y contemplarse como “un incentivo” para que personas que utilizan el vehículo privado se suban al transporte público. Eva María Cabornero cree que la Diputación debe incluir entre sus prioridades esta medida para reducir los gastos de las familias. De manera gráfica ha advertido que una familia de cuatro miembros viene a soportar un coste de “187 euros” al mes en transporte público.

Por su parte, Socialistas Vascos ha puesto sobre la mesa cifras para demostrar el esfuerzo que ya realizan las administraciones públicas en Bizkaia para mantener la red de transporte. De los “300 millones anuales” que se gastan en el territorio en mantener el transporte público, el “69%” se paga vía financiación pública. “Solo un tercio” de esta inversión se cubre con los ingresos generados por la venta de billetes. Actualmente, cada habitante de Bizkaia “ya tiene una subvención de 160 euros” al año “use o no use el transporte público”, según el socialista José Alberto Álvarez Castrejón.

En esta línea, el otro grupo que apoya al Gobierno foral -Nacionalistas Vascos- ha destacado que tras la idea de EH Bildu se esconde una justificación “trampa” como es el hecho de intentar equiparar la situación del aumento del coste del transporte privado con el escenario del transporte público. La bonificación para rebajar el combustible es una medida “excepcional” planteada por el importante incremento del coste de los combustibles que también sufren las administraciones que prestan el servicio de transporte público; mientras que los usuarios y usuarias de los modos públicos no han notado un aumento del precio del viaje.

TRANSPORTE FLUVIAL POR LA RÍA

Por otro lado, el grupo Elkarrekin Bizkaia ha defendido en la misma comisión una iniciativa no de norma para plantear el estudio de una línea de transporte público fluvial por la Ría del Nervión. La iniciativa ha sido tumbada nuevamente por el rechazo de los grupos que apoyan al Gobierno foral. EH Bildu y el grupo Mixto-PP Bizkaia han apoyado la elaboración de dicho estudio.

El juntero de la formación morada Emilio Lobato ha defendido la realización de un estudio sobre la posibilidad de incorporar un transporte fluvial “que sirva de conexión



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

de ambas márgenes de la Ría en diferentes puntos”, tomando como referencia los actuales servicios de “gasolino” entre Erandio y Barakaldo o entre Portugalete y Areta, y valorando los distintos embarcaderos aún presentes en ambas orillas de la ría como posibles paradas del servicio. Existen desarrollos urbanísticos “importantes” que van a suponer mayor habitabilidad en los márgenes de la ría, que deben ser tenidos en cuenta para integrar este servicio en la red actual, al tiempo que se “salva” un elemento patrimonial histórico como son los gasolinos.

Tras rechazar esta idea por parte de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, la Cámara vizcaína no se verá obligada a instar a la Diputación Foral de Bizkaia y al Gobierno vasco, a realizar este análisis en el seno de la Autoridad de Movilidad de Bizkaia (AMB), como pedía Elkarrekin Bizkaia. Ambos grupos ha sacado a relucir un estudio de Ingartek elaborado para el Ayuntamiento de Bilbao y hecho público en diciembre de 2021, en el que ya se desaconsejó un servicio de transporte por la ría en su tramo de Bilbao. Entre sus conclusiones se decía que “no se consideraba una alternativa viable” porque no mejoraba la actual oferta de la red de transporte, que es “mucho más adecuada” con respecto a frecuencias y paradas que la estudiada, según ha señalado el juntero jeltzale Unai Lerma.